

**«KILI-KILI» NESKA-MUTIKO
EUSKALDUNEN MAISU**



Behin honezkero nork ez dau ezagutzen KILI-KILI, txapeldun mutiko musugorri eta euskaldun jatorra? Hasierako janzkera eta izaera berberaz dirau orain ere, sortu eta 26. urtera. Tinko jarraitzen dau berean; hau da, ume euskaldunen lagun izaten, hareen etxeetan hilero-hilero hots egiten, euskaltzaletasuna bihotzean txertatzen, hareekin jai eta jolas egiten, hareen euskera lantzen eta txukuntzen...

KILI-KILI, ume euskaldunen euskera-arazoari ahalik eta erantzunik egokiena emoteko jaio zan. Ez zan behin betiko eta aldaezina jaio. Ume euskaldunen hizkuntza-arazoak zelakoak, erantzuna ere halakoa emoteko prest-prest dogu beti. Beraz, unean uneko beharrizanen arabera, izaera malgua izango eban KILI-KILIk.

Euskera galtzeko zorion, gaisotasun larriak jota, dabekuak hemen debekuak han, bizi ezinik... ikusi eban Jose Antonio



Retolaza KILI-KILIren sortzaileak. Eta harekin batera, gure nortasun erdi galduaren gaubela aurrez aurre somatu eban. Horrelakoa zan egoera. Baina ume euskaldunena oraindik negargarriagoa: euskaldun eta abertzale lez, bertan behera itziak egozan. Herria, bertako gauzak, kultura... maitatzen ez jaken irakasten. Hizkuntzari dagokionez, etxekoen ustez erdera zan

norberaren euskera

LANDU!



ikasi beharrekoa. Euskera zertarako? esan ohi eben guraso askok. Eskolan, barriz, dana zan debeku, zigor eta bildurra. Han inon baino zapalduago. Umeak eukanik eta bereena, bere izaera, bere nortasuna goitik behera zapalduak ziran.

Euskaldun eta abertzale izatearen ederra txikien bihotzean txertatu nahiak, euren nortasuna ederresten ikasi egien harei hainbat gauza esan nahiak, egoezina sortu eban gero KILI-KILI izango zanaren aitagan eta amets politak eragin. Amets horreen artean, hauxe zan bere buruari behin eta berrero egin ohi eutsan itauna: zelan esan nik txikitxo honei barruan dodan hau? Eta hona erantzuna: umeentzat egindako aldizkaritxo baten bitartez. Baina horretarako umeekin ume egingo zan pertsonaia bat asmatu behar eta horra KILI-KILI!

Arriskuan, bizinahiak eraginda, han-hor-hemen sakabanaturik egozan abertzale-euskaltzaleen indarrak batu eta kultur mugimendua jator bati ekin eutsan: KILI-KILI mutiko euskaldun maitagarria da ekintza guzti hori gauzatu dauan sinboloa. Erdal eskoletan noraezean egozan umeak erderaren atzaparretatik askatu eta euskaldun irauteko bidean jarri zituana.

KILI-KILI bere nortasun berezia dau, bai kanpoko itxurari dagokionez eta bai barruko izaerari dagokionez. Itxura aldetik, baserritarra dogu bere kaiku, txapel eta guzti. Aldi haretan, euskaldun jendearen artean, modaren haizea urirantz begira jarri zan eta arlotetzat jo eben, artobero-usaina hartzeraino... Urian abegi ona izatekotan, janzkera hori aldaturik, mutiko dotore eta finaren antza agertu behar ei eban. Uriko harroputz batzuk horrelako kritikak egin eutsiezan. Baina haize horreek, horixe ziran ezer izatekotan: aldakorrak; gaur iparraldetik eta bihar hegoaldetik jotzen dabenak. Itxurak itxura, KILI-KILIren bizinahiak leku egin eta aurrera joko eban herrietan, urietan nahiz edonon. Dana dala, KILI-KILI berarizko itxura dau, berebera eta ez dot uste inongo umeari ezain edo itsusi egin izan jakonik inoiz; helduetariko batzuri baliteke, gu geu gara, izan ere ta! Nahiko pirriak eta barrunbe korapilatsua dogunak.



Baina burutu dituan lan eta egin dituan agerpenetatik haren barruari, gogoari, arimari begira jarri gaitez. KILI-KILI oso abertzalea, euskaltzalea eta erlijiosoa da. Hiru zutabe horreen gainean eraiki dau bere teila bako eskola berezia. Ideal hirukotx

hori oinarri dauala, tinko dirau, ekaitz eta afrontu guztiak gorabehera.

Hor dogu, ba, maisu euskalduna. Euskal Herriko umeen adiskide aparta. Umeen artean ume eta lagun bihurturik, ho-geitasei urte igaro arren, beti lehenean dirauena: beti alai, umoretsu, jostalari. Egia esan, KILI-KILI, umeen artean tartekatuz, hareekin jolas eginez, harei irakurgai politak eskuratuz, tokian tokiko euskera nahiz batua txukun eta dotore berba eginez da maisu. Ez da berbalapikoa. Ez da erretolika luze eta gogai-karrietan denbora emotearen zale. KILI-KILik egin egiten dau. Bere uste edo aburuak, erdi-olgetan irribarrez eta umorez umeekin egitearen aldekoa da. Inguruko erderak ere jakin arren, euskera hutsez dihardu beti. Bizkaieraz eta batuaz. Erdaldunen bat aurrez aurre dauanean ere, euskeraz egiten dau eta ez dau besterik ahotan hartzen. Ez da batetik bestera, euskeratik erderara, saltoka ibili ohi dan kaskarina.

Jolasa bitarteko

Maisu honen irakasbidearen ardatz jolasa dala esango neuke. Edonorentzat ere jolasa bizitzaren aurpegi alai atsegingarria da, gaur eguneko urduritasun eta etenbeharraren lasaigarri. Ezinbestekoa dala dirudi. «Umearentzat, bost urtetik hamarreraíño, ikaskaitik beíñena jokua da» -dino Santi Onaindiak, JOLASKETA deritxon liburu mardularen sarreran. Eta hona zer dakarren aurreratxoago: «amarretik amabost urteraíño, bearrezkoa, ta amabostetik ogeitabateraíño, oso egokia. Bere bizialdiko irutatik bat jolasean emoten dau».

Umearentzat ia amasa hartzea lez da. Berez-berezkoa eta behar-beharrezkoa. Haren barru-barruko egarria. Pertsona nagusi askok, umeen guraso badira batez ere, jolas egin behar hori ezinbestean eta gogoz kontra onartzen dabe. Baina haren ustez, jolasa denbora emote hutsa da; gitxieneko neurrietara mugatu behar litzatekena. Umearen ikasketa-aroan eragozpen, beharrezkoenean adi egoten izten ez deutsona. Gurasoen artean, oraintsu arte behintzat, nahiko sustraituak egon dira honelako

ideiak, 'umeak jan eta olgau' egiten ei dau. Umeak jolasez bizi dira, gazteak ametsez eta zaharrak oroitzapenez. Benetakoa ez dan ekintzari 'jolasa' deritxogu. Beraz, jolasa, garrantzi bako gauzatat hartu izan da orain arte...

Behin honezkero, ondo dakigu umearentzat jolasa ez dala txantxetakoa, gitxiago oraindik badaezpadako zerbait, gauzarik serioenatarikoa baino. Ez da alperriko denbora emote garrantzi bakoia. Haren bizitzan ezer bada garrantziskorik, beharrezkorik, horreek maitasuna eta jolasa dira.

Horretaz oharturik, KILI-KILik jolasa darabil bere maisu-lanean: «Kili-jaiak», txangoak Euskal Herrian zehar, zozketak... «Kili-irratia»k ere, era batera edo bestera, jolasa erabili ohi dau. Jolasa eta umore ona. Txikiei irribarre eragitea, bihotzean kili-kili egitea izan ohi da haren gogoia. Umeen erara, jolasez, pozez, umorez... euskal kulturazko hainbat gauzatxo kopau txikitik eskeiniz... Jakina! gauzarik onenaz ere, bat-batean betekada haundiegia egin ezker, kaltegarri litzateke. Betiko ok eginda geratzeko arriskua legoke gainera. Horregaitik, KILI-KILik pitinka-pitinka emoten daki. Hazur hutsik eta ozpinik ez. Beti jaki gozo eta mamintsua. KILI-KILI umeen munduan sartzen da eta hareena jolasa da. Euskera jolasarekin bat eginik bizi dabe. Jolas-euskera hori da euskera bizia, nahiz eta eskola barrukoa ere guztiz beharrezkoa izan.

Egindako lan batzuk

Lehenengotan Bilboko San Antongo zubiondotik ezkutu-gordeka, kukuka hasi jakun. Aldi latzak ziran hareek... Madrileko Pardokoa bizi zan oraindik, eta... haren lagunak han-hor-hemen sakabanaturik, bertan geunkazan, ustekabea edonon sarraskia egiteko prest. Diktadurapean argi ibili behar. Orduan horrelako ekintzak debeku eta madarikazioak beti ere ganean izaten zituen eta, eliz gela eta antzeko lekuak erabiliz emon zituan KILI-KILik lehenengo pausutxoak.




Aldizkari hori lagun dauala herriz herri dabil umeen artean.
Baina KILI-KILI gaisotu egiten da. Gaisotasun ezezagunen bat?
Medikuak ezin igarri zer dan. Bihotzekoaz dago! Herrietan erdera
eta erdera entzunez, euskeraren egoera negargarria ikusirik,

gatx larri batek jota geratu da. Sendagaia zein dan oharturik, ume euskaldunei eskutitzak euskeraz idazteko erregu bizia egiten deutse. Baita erantzun ere umeak. Milaka eskutitz jaso zituan, baina umeen luman, euskera berez ederra izan arren, berbak laburturik, esaerak desitxuraturik egozala ikusi eban. Beraz, 20 bat ale aterata gero, aldizkaria agintariak, Fraga Iribarne ministrari zala, galerazo eben ezkeru, alfabetatzeari ekin eutson multikopiaz ateratako koadernutxoen bidez. Izena LAN TA LAN euken. Geroago, inprimategian argitaraturik, dotore eta txukun. Atxegingarriak, politak ziran, KILI-KILik beti egin izan dituan erakoa. Ahozko euskera, tokian tokiko laburduraz beterik agertzen dana, idatziz zelan dan bere forma jator eta osoan, adierazten zan batez ere ariketa horetan. Berezkotik, ahozkotik idatzirik bidea egiten. Asmoa hau zan: euskaldun osoa egitea alfabetatze bidez.

Geroago, gizarteko egoera apur bat aldatzean, euskera eskoletan geroago eta gehiago erabiltzen hasi zan eta alfabetatzearen zeregina hareek beteko eben; Dana dala, KILI-KILik badau oraindik zereginik! Lehengo debekuakaitik ezin argitaratu izan zan aldizkaria barrero hasi zan agertzen. Aldizkaria bizi-bizia da. Hainbat atal ditu. Lautik hiru gitxienez, komikiak dira. Mundu zabaleko komikiak. Ospetsuenak ASTERIX eta MORTADELO ta FILEMON. Beste aldetik KILI-KILik berak euskeraz asmatuak ere badira: ERRAMUN BASAJAUNA; EUSKAL HISTORIA. Honeek komiki antzera eginak dira; EUSKAL HISTORIA segidako lerro laburretan eta laukietan idatzirik dator, baina osagarritzat alboan komiki erako irudi eta alkarrizketak ere baditu.

Aldizkariaren gainerako sailak honeek dira: historian zehar izan diran pertsona ospetsuen biografiak; oraingo gizon-emakume batzuekin egindako alkarrizketak; Kili-kartak; Ezetz jakin. Hau sariketa bat da eta milaka umek esku hartzen dabe.

Gaztetxoentzat ateratako liburaska interesgarriak ere baditu: BIZARGORRI; WILLIAM TELL; DICK TURPIN; LEONARDA DA



VINCI; IVANHOE; DANTE ALIGHIERI; EUSKAL HISTORIA; EUSKAL IPUINAK; ARROTZ IPUINAK; JESUS NAZARETARRA; OPORRETAN; PAPER-IRUDIAK eta abar.

Ohartxu bat egin beharra dago: gorago esan dogunez, komikirik gehienak euskerara itzuliak izan arren, itzulpen soilak ez dira. KILI-KILik euskal jantzia bakarrik ez deuse ipinten, baita, ahal dala, euskal muina edo arima ere. Mundu zabaleko komikiak euskerara itzuliz batera, hango pertsonaiak euskalduntzen ere ahalegintzen da. Garrantzi itzela emoten deuse, gainera, mundu zabaleko komiki ospetsu horreei. Zergaitik? Umeak ASTERIX, MORTADELO ta FILEMON eta abar erderaz ditue barneraturik. Beraz, horreek euskeraz birsortu eta umeei haren gorabehera guztiak euskeraz barneratzea da KILI-KILiren egitekoa. Helburu hori benetan lortu eta euskeraz hain egoki egiten daualako da Euskal Herrian argitaratzen diran euskal aldizkari guztietarik, hizkuntzaren erabilerari dagokionez, onena ez dakit, baina onenatarikoa bai.

Euskeraren egoeraz eta etorkizunaz kezka

Hasieran esan dogunez, KILI-KILiren nortasuna hiru berbatan laburtuko geunke: abertzale, euskaltzale eta kristau zintzoa. Hiru ezaugarriok nortasun beraren alde ezbardinak dira harengan; lehenengo biak, bereizten ere ez errazak.

Orain dala hogeitasei urte, euskera eta euskal izaera arrisku larrian ikusirik hasi eban KILI-KILik euskal kulturaren aldeko bidea. Itzulituz, aldapaz, eragozpenez betea; baina era berean liluragarria, erakargarria, atsegina. Bere antzeko euskaltzale eta abertzale batzuk zituan ondoan laguntzaile. Hego Euskal Herriko alde guztietako umeak entzun eben haren deia eta bat egin dabe bide horretan. Beraz, erakunde hau hazi egin da, familia handi bihurtu da. Hala ere bidea luzea da oraindik eta arriskuz betea. Oraindik ezin kukurururik egin. KILI-KILI kezka, arduraz dago euskeraren etorkizunaz. Igaz, 1991.ean sortu zaneke 25. urtea zala eta, txartel bat eta idazlan bat argitaratuituan beren-

-beregí. Hareen laburpena jarriko dit hemen KARMELen irakurleentzat.

Sarrera txikitxo baten honela dino: «KILI-KILI Erakundeak aurten 25 urte betetzean euskerearen egoerea azertu eta gogoan hausnarturik txarteleko irudi gogor hori asmatu dot eta idazlantxo hau idatzi. Irakurri egizu».

Azpian KILI-KILI berak izenpetzen dau. Txartela benetan esanguratsua da: KILI-KILIren burua agertzen da erdi-erdian bere txapel eta guzti. Begiak eta ahoa estalirik ditu. Begiak ikurrinaz eta ahoa Espainiako eta Frantziako banderez estalirik. Buru gainean honela dino: «25 urtetan Kili-Kili jo ta ke baita 1991n ere». Behaldian, barriz, hauxe:

«Hareek euskerea ito
+ Euskaldunak itsu

= Euskerea kito!»

Idazlanean dei larria egiten dau lehenengo lerrotik bertatik hasirik:

«Gure euskerea, gure aurretikoen euskerea, milaka urtetan iraun dauan euskerea badoakigu. Gaur haren alde ezer, eragin handiko zeozer, egiten ez badogu badoakigu... betikol!»

Estatu indartsu bik, Frantziak eta Espainiak, ito beharrean eukiaz gainera Euskal Herriko semeak «triumfalismo» batek eraginda begiak itsu daukez».

Ondoren, Espainiako konstituzioaren testua, Euskal Autonomi Elkarteko estatutoa eta Nafarroako hobekuntzakoa edo «*amejoramiento*» dalakoa harturik, hona zer dinoan: «*derrigorrez español* izan beharrean gareanok, *derrigorrez* jakin behar dogu, bada, *castellano* hori. (...) Euskadin, bada, erderaz jakitera behartuta gagoz; euskeraz jakitera, ostera, EZ dago inor behartuta. Nafarroan, barriz, «*Amejoramiento*»pean txartoago. Eta Ipar Euskal Herrian, bardin antzera».

Euskaldunon harropuzkeria ere gogor salatzen dau. Eskoletan jarri diran A, B, D ereduak. EGA tituludun irakasleak, herri eta kaleen izenak euskeraz... Horrelako gauzatxoak eginez, guztia eginik dagoalakoan, gure hizkuntza bide onetik doalakoan, nasai bizi dirala salatzen dau.

«Baina euskerearen egiazko egoerea beste bat da; euskerea, ezpanetan darabilgun euskera bizia, atzeraka doala.

25 urtez, euskerearen alde lanean dihardugunok, eta aurretik ere beste 25 urtez euskerearen egoeraren lekuko izan gareanok badakigu zer dinogun.

Euskerea gero eta gitxiago, gero eta traketsago egiten dala begi bistakoa da. Hori ikusten ez dauana itsu dago».

Aurreratxoago, euskera batuaren eta alfabetatzearen beharra azpimarratuz, bizkaieraren baztertzea oker handi eta kaltegarritzat agertzen dau, horren errua euskaldunen itsukeriari eta irakaskuntza eta komunikabideei egotziz.

Euskaldunon itsukeria salatzen dauaneko hamargarren puntuan hauxe dino: «Bizkaierearen arazoa bizkaitarra dala bakarrik eta bizkaitarrak bakarrik konpondu behar dabela inork uste badau, itsu dago».

Benetan gogoan izatekoa da idazlan honen azken zatia. Hona hitzez hitz:

«Itsu dagoanak kendu dagiala, bada, begiak estaltzen deutozan zapia eta ikusi dagiala egia dan ala ez ondorengo hau:

- eguneroko bizitzarako behar-beharrezko ez dan hizkuntza,
- mengel, indarge eta gaurkotu bage daukagun hizkuntza,
- gitxik, modu askotara, txarto eta edozelan darabilgun hizkuntza,
- beste hizkuntza (fratsesa nahiz espainola) indartsuaz batera erabili behar dogun hizkuntza,

- legeak itota daukan hizkuntza honek badau etorkizunik?
Badau urtenbiderik?

Bai, badau guk gura badogu. Baina...

- badabe euskal politikatiak eta Administrazioak euskerea aurrera atarateko benetako borondaterik, asmo sendorik?

- ba ete dau herriak berak?

- ba ete dogu guk geuk, zuk eta biok?

Amaitu orduko, ohartxo bi: idazlan hau bizkaieraz egin dot KILI-KILIren omenez, hark, euskalki ezbardinak eta batua ere ondo jakin arren, bere-berea eta maiteena bizkaiera daualako.

Ekintza guzti honen asmatzaile, eragile, ardatz, arima edo nahi dozuna, Jose Antonio Retolaza da. Honen gogo bizietariko bat ume euskaldunari, geroko euskaldunen bizigarri eta eredu izango dan monumentu bikain bat egitea da. Horrez gainera, Euskal Herriko administrazioak, hemengo agintariak euskera indartzeko eta salbatzeko benetako borondatea agertzea, eginbehar hori bene-benetan euren gain hartzea. Hala bedi!

Luis Baraiazarra